



“UMANDI”ren EUZKAL-ELIZTIA Euskeraz idatzita

Urreztarazu'tar Andoni'k egiña eta “Kardaberaz - 4i, eta Gasteiz'ko Eset argitaletxeak argitara emona. 1989. 970 orrialde.

Leendik ere, leenen argitalpena, erderaz, 1955'garren urtean izan eban, 626 orrialde, Zarautz'eko Itxaropena” etxean egiña. Ba-dau bizkaieraz be. Askok eta askok elizti edo gramatika onetatik ikasi eben euren euskera ederra.

Eta orain axe bera ez, baiña antzekoa, osotua, ugaritu, edertu eta aunditua euskeraz eskintzen dausku. Urreztarazu maisu karrera egiña da. Nik kartzelatik urtenda laster, 1942'antza ezagutu neban Gasteiz'en; orduan ere nebarreba biak euskerazko klaseak emoten ebezan, eta arrezkero guztian orretan jardunak dira. Gero, Eibar'en, 1955'an, aren gramatikatik emon oi nebazan euskerazko klaseak. Eta azken urteotan euskeraz erakutsi eta idazteari txit emonak daukaguz biak.

Bere eliztia osatzeko oraiñarte agertu izan diran gramatkarik baliotsuenak esku artean izan ditu, elizonetatik agiri danez, Azkue eta beste batzuk buru garrantzitsu dirala; ots, gerra aurretik eta ostean, euskal errian ortzaz idatzi dan guztia irakurri eta aztertu izan dau bere gramatika biribiltzerakoan.

Ikaskaika dago gertatua, Eun eta larogeta zazpi guztira. Gai baxotxean zeze dakar baxotxari dagokiona ulerterrez eta egoki jarrita danak, euskal gaietan maisu danaren eskua agertzen dala.

Ona luzatu bage, eliztiaren aurkibidea, berak dakarrenez, abezeren jarraika:

“Abezea, aditza, a itzaren esanaya bestelutzen duten itzak, aditz-izen-orea, aditz-ezenen alkarkizunak, aditzondoak; adi-yaberik gabeko adizkiñak, agerrezkoak; alkarrekikoa, alkarren zentzunkideak diren atzizkiak, almonera, “arte” ta “alde” izetzen zentzunak asteko egunak, atzerako itzak, atzizkiak, aurrizkiak, “au” ta “oi” agererazleen zentzu berezia; askar... Bakar... baldintzakoa, baiyeztekoa, bikondeak, elizti-kundea, erdizkiak, “ere”, bere erabiltzea, erkatzea, esakuntza nagusia ta mendekoa, eziñera, galdekizuna, galdetzea, galdetzekoak... Galdetzekoen eratorritakoak, geigarriak, gutxigarriak, itz-elkartea, itzen motak, izena, izen-jokoa... Izenondoa, izenordeak... Izkiak, izkien aldatzea, kundea, lenengo asmo ta esan-nayak, Lokarritza, mugagabekoa, mugagabetasuna,

mugarritzkoa, mugagabekoa, noizko egunak, orduak, ots-antzekoak, oyu-itzak, sendotzekiak, soñu ta ikurrak, ukatzea, urteko illak, zati-izena, zenbakitzak...

Auxe dozu eliztiaren mamiña. Ikus daitezunez, ementxe dator ondo birrinduta edozein izkuntz-gramatikatan erabili oi diran ikas-goraberak guztiak; ez dautso ezertxok be iges egin. Liburu mardula, baiña guztiz interesgarria. Bear bada arriluko ziñan ainbeste itz-ezezaun ikusita; ez dira barriak be, edozein iztegitan datozanak baiño; arrigarri egin ba'yatzuz, zeure erruz da, ikasi ez dozuzalako, errezak eta doiñutsuak dozuz, errez-errez belarriak artzen dabezanak. Irakurri egizuz zortzi-amar ikaskai, astiro ta arduraz, eta igarri barik geratuko jatzuz. Eta gramatika osoaren jaube egingo zara.

Egiñaz eta esanaz konturatzeko ez da txarra adibide lez agergarri bat jar-tea. Eta ona beingoan olako bat dalako liburuaren erdi erditik artuta, au da, 88'garren ikaskaia, oso-osorik.

LAROGETAZORTZIGAR'EN IKASKAYA

Aditz-jokoa

EGINKO'Á - IRAGANKO'Á - ADITZ LAGUNTZALEA

IZAN - AGINTZERA - IZAKAI-ADIZKIÑAK

Irugar'en notiñaren bakañ-izakaya

Nik	D- e)	-ZA- -Da-	-N	
Zuk	e)	-ZA- -ZU		edo: ZA- -ZU
Berak	B- e)	-ZA		
Guk	D- e)	-ZA- -GU-	-N	
Zuek	e)	-ZA- -GU--TE		edo: ZA- -ZU--TE
Berak	B- e)	-ZA- -TE		

Irugar'en notiñaren bakañ-izakaya

Nik	D- -IT- -ZA- -Da-	-N
Zuk	IT- -ZA- -ZU	
Berak	B- -IT- -ZA	
Guk	D- -IT- -ZA- -GU-	-N
Zuek	IT- -ZA- -ZU- -TE	
Berak	B- -IT- -ZA- -TE	

Jañtako erak: DEZADAN, EZAZU, ..., irangangaitzetan agiri ziran beren mala-koak bezela, eztira bakar'ik erabiltzen, aditz iraganko'aren izenarekin, bi itzezko eraz baiño.

Etoñ ere, eztaoz IZAN'etik, bere eratorritako EZAN'etik baizik; baiña azken itz ori, zentzunik emateko, ezta bakañik erabiltzen.

Lenengo notiñetan, asteko D- ikusten dugu, irugar'en notiñaren izakaya adierazteko, len besteetan be agiri-izan danez; eta amaitzeko -N, laguntzale

irangaitzean bezela; ta izki onek, emen ere, era oyei menekoeraren bedegartasuna ebatzen die, era au ikastea ikusiko dugunez.

Bigafen notiñetan, -ZA- eña agertzen da, bakañik edo geikia dan e) izkia-renkin, EZA-; ta adi-yabea adierazteko amayerak.

Eta irugafen notiñetan, asteko B- ikusten da, era ontako bedegaña dan izkia.

Eginkizunak

1. Lenengo lauki ontan, sei notiñai dagozkien EZA-ren era irangankorak ipiñi beañ dira eta askañ-izakayaz; kulatzen ordez, esan eta idatzeko:

	Bakañ-izakayaz	Askañ-izakayaz
Nik	Dezadan	...
Zuk	...	itzazu
Berak	Beza	...
Guk	...	ditzagun
Zuek	Ezazute	...
Berak	...	bitzate

2. Urengo esakuntzetan, aditzera irangankorak agertzen dira; oyetan, bakañ-izakayezkoak diranak askañekoen bidez aldatu beañ dira, ta alderantziz, askañ-izakayezkoak bakañekoen bidez; era berean, bayezkoak ezezekoen bidez eta ezezekoak bayezkoen bidez ere aldatzeko; kulatzen ordez, esan eta idatzi:

Gutxiago *jan ezazu* ez gaxotzeko; ... - *Ez ditzadan* iñoz orlako asmoak *ukan*; ... - *Ikasi beza* mutil orlek gero ta geyago; ... - *Ez dezagun lo-egin* zure adiskideak etxetik joan arte; ... - *Layatu ezazute* zuen soloa Goyeñ'n dagiten bezala; ... - *Galbaitu bitzate* gari ta garagañ guzti oyek lenbailen; ... - *Irauli dezadan* etxe-auñean eguñ-gurdi ori; ... - *Landatu itzazu* zure baratzean zugatz igalidunak geyago; ... - *Ez bitza jaitzi* bere ardiak beste artzañak eldu arte; ... - *Nañastu dezagun* añ aundi ori bidetik at, añetaz jartzeko; ... - *Ez itzazute* oindiño iñausi, ez udareondo ez eta sagañondoak ere; ... - *Ez bitzate eralki* emen igarantik oraintxe ekañ ditzuten urunak; ...

3. Oitura dugunez, emengo galderai erantzun egoki bana eman, esanez eta idatziz:

Kendu ezazu ori ortik! Zer nai duzu nik kentzea? ... - Nundik nai duzu ori kentzea?; ... - Ori ortik kentzea oyei eskatu al diezu? Ez, ... zuri baño. -- Ona etortzea gebendu baliote, ez zinduzteketea ikusiko: Nork ez gindukean ikusiko, ona etortzea gebendu baliote?

Nortzuk ez zituzketean ikusiko, ona etortzea gebendu baliote?...

Nik ikusiko al zindukedan ona etortzea gebendu balidate?; Ez, zuk ere ... -- Egiatzko euzkaltzaleak beren asmoak edonun zabalduko lituzkete: Nortzuek zabalduko lituzkete beren asmoak edonun?; ... -Zer zabalduko lukete edonun egiatzko euzkaltzaleak?; ... -Zuk ere zure asmoak edonun zabalduko al zenituke? Bai, nik ere ... - Ez zitzaigun iñor urbildu: Nori etzitzayon iñor urbildu?;... Nor ez zitzaizuen urbildu?; ... -Niri iñor urbildu al zitzaidan?; Ez, zuri ere ... --Zer uste-izango lukete, berak egin dutena gerok egingo bagenu?; gaizki egongo litzakela uste izango lukete, berak egin dutena zerok egingo bazenute: Ongi

egongo litzakela uste al izango al lukete, berak egin dutena gerok egingo bage-
nu? ... Nork uste izango luke, egin duena zuk egingo bazenu, gaizki egongo li-
tzakela?; ... - Eta zuek egin duzutena guk egingo bage nu, gaizki egongo litz-
akela uste-izango al zenukete?; Ez, guk ..., baizik. -- Beren bazkariaren ondaki-
ñak utziko balizkigute, ez genieke ezer esango: Nori ez zeniokeete ezer esango,
bere bazkariaren ondakiñak utziko balizkizue, ez genieke ezer esango: Nori ez
zeniokeete ezer esango, bere bazkariaren ondakiñak utziko balizkizue?; ... - Eta
beren bazkariaren ondakiñak utziko balizkizute, ezer esango al zeniekete?; ...
- Zuk ezer esango al zenidake nire bazkariaren ondakiñak utziko banizkizu?;
Ez, nik ere ... -- Jakin beza aurorek lenbailen, egin bea duena: Nork jakin bea
du lenbailen, egin bea duena?; ... - Zer jakin bea du aurorek lenbailen?; ... -
Zuek ere lenbailen jakin bea al duzute, egin bea duzutena?; Bai, guk ere ... --
Beren maitasafeetaz zuzpertzuko bazinduztee?!: Obeto egongo al ziñakete
beren maitasafeetaz zuzpertzuko bazinduztee?; ... - Nola egongo ziñakete
obeto?; ... - Ni ere obeto egongo al nintzake beren maitasafeetaz zuzpertzuko
banindute?; Bai, zu ere ... --- Esan zenidan onezaz, ez niekean ezer itzegingo;
Nork ez ziekean ezer itzegingo, esan nion onezaz?; ... - Zertaz ez zeniek
ezer itzagingo?; ... - Guk ezer itzegingo al geniekean, zuek esan zeniguten one-
zaz?; Ez, zuek ere ... -- Itxasertzeko arkaitz aundienak erakutsiko nizkizueke:
Nork erakutsiko lizkiguke itxasertzeko arkaitz aundienak?; ... - Zer erakutsiko
zeniguke?; ... - Guk erakutsiko al genizkizueke itxasertzeko arkaitz aundienak?;
Ez, ... baño. -- Orduan ez ninduten ikusi omen, jabearengana zurekin joan nint-
zanean : Nor etzuten omen ikusi, jabearengana nirekin joan ziñanean?; ... -
Noiz ez zinduten ikusi omen?; ... - Gu ikusi omen ginduzten jabearengana zue-
kin joan giñanean?; Ez, zuek ere ... -- Ofaztu ezazu ondo zure burua! : Nork
ofaztu bea du ondo bere burua?; ... - Nola ofaztu bea dut nire burua?; ... -
Nor ofaztu bea du ondo ofek?; Bere burua ... -- Iltzatu itzazute kutxa oyek len-
bailen! : Nortzuek iltzatu bea dituzte kutxa oyek lenbailen?; ... - Zer iltzatu bea
dugu lenbailen?; ... - Eta nik ez al ditut iltzatu bea kutxa oyek lenbailen?; Ez, ...
baizik. -- Senda beza bere burua alik eta ongienik! : Nork sendatu bea du bere
burua alik eta ongienik?; ... - Nor sendatu bea du ofek alik eta ongienik?; ... -
Gexo ayek ere beren burua alik eta ongienik sendatu bea al dute?; Bai, ayek
ere ... -- Irabazleek ez zuketean ainbeste jardukiko : Nortzuek etzuketean ain-
beste jardukiko?; ... - Nola etzuketean jardukiko?; ... - Zuek ainbeste jardukiko
al zenuketean?; Ez, guk ere ... -- Oso pozik egongo ziñaketean, garaiz aldu
baziñate bezela : Nortzuk egongo zitzaketean oso pozik, garaiz aldu balira
bezela?; ... - Nola egongo giñakean oso pozik?; ... - Ume ori ere oso pozik
egongo al zitzakean, garaiz eldu balitz bezela?; Bai, ume ori ere ...

4. Emen ipui biren beñ ematen da, ta, guzia ongi irakuñ ondoren, ipui oyen
mami ta zertzeladak adiskide bati egingo zayon gutun batean idatzi bea dira,
norberaren arauz :

“MARI'REN MOR'OYAK”

“Jentilak Leizadi'ko arpe batean bizi zirala, egundoko izañ edeñ bat odeye-
tan agertu zan.

Alako izava ikusi zutenean, jentil ayek erabat ikaratu ziran, ta Ludi'an zer
gertatu bea ote zan ezin asmatu rik zebilzten.

Alako batean, arpe bañuan erdi-itxututa zegoen jentil zañ bat ataka auñera atera ta, betazalak endayaz zabaldurik, odeyeta begira jañ zuten, antz emango ziola-ta.

Bai ta, ikusi orduko, deadař egin : -Ai, ene umeak...! "Kismie" jayo duk, galduak gaituk oraintxe. Bota nazazute ni emendik gain-bera.

Jentilek Jesukristo'ri "Kismie" deitzen zioten...

Gero, Kristau-asmoa Ludi'an zabaltzen asi zanean, jentil guziak sakabanatu ta bereala galdu ziran...

- Ta, zure jakin-min ori ase al duzu, euzkalduna...?

- Azkeneko galdera bat egingo dizut, galdetzen uzten baldin badidazu.

- Galdetu, galdetu...!

- Tartalo'ren izena aipatu didazu lenago. Zein zan Tartalo ori?

- Tartalo, gaiztoa zan. Bekokiaren erdian zeukan begi bakař aundi bat, eta Aizkofi'ko arpe batean bizi zan...

- Zergatik esaten didazu Tartalo gaiztoa zala...?

- Tartalo'k mendiko piztiak jaten zituen; baña kristauren bat ařapatu ezker ere...

- Jaten zituen...?

- Bai, orixe...!

- Ta bizi al da oraindik?...

- Esango dizut nola il zan : Bein bi anai ařapatu zituen. Biak, mutil gazteak. Arpera eraman, ateak itxi ta, ayetako bateri buñuntzia sartu ta, eřeta, jan zuen. Besteari, beřiz, eraztuna jañ zion atz batean, ezin kentzekoa.

Bazkalondoan loak artu zuen Tartalo... Orduan beste anayak, bizi zanak, buñuntzia sutan goritu ta bere begi bakařetik sartu zion Tartalo'ri.

Tartalo'ren oñ ta gařaxiak...! Itxu geratuaren, ba-zuen indařa, ta mutilaren bila zebilen; ardi-nařu pila batean gordeta zegoen gure mutil ori. Mutila eřezago bilatzeko, Tartalo'k ardi-nařuak arpetik lekorera bota zituen. Bai ta mutila ere, nařuekin batera.

Ekiten dio mutilak aldapa-bera laisterka. Baña atzean zeraman eraztuna asi zan deika : -Emen nago...!, emen nago...!

Deadař ayetara, Tartalo laisterka be mutilaren ondoren. Mutilak bere burua galbidean ikusi zuenean, atza ebagi ta, eraztun ta guzi, osin aundi batera bota zuen... Bai ta Tartalo ere, eraztunaren atzetik, osinera... Bertan ito zan".

Orrelaxe daukaguz beste ikaskai guztiak be. Lenengo gaiaren azalpena, galderai erantzuna, ipuin edo beste euskal lanen baten zatia andik edo emendik artuta. Ikaskai asko dirala? Bai, eun eta 87; baiña artetsu irakurritz eta pizkat gogoznartuz ba'zoaz, igarri barik jaubetzen zara gure izkuntza ederrez.

Arrinda'ren "Jainko txikiak" (17-8-9'gn. orialdeetan)
Aita Onaindia